# IPARRA HEGOA

2023ko
MARTXOAREN 27tik,
APIRILAREN 2ra.

MAITA
SUNARENA
• • •
HANGO
HEMENGOA

IPARRA
HEGOA



**MUGA**



**LANGA**



**BOTA**

**SEGA**

**iparrahegoa.blogspot.com**

# IPARRA HEGOA 26. ALDIZ

*Baga, biga, higa... 26!* Hogeita sei dantza, hogeita sei borroka, hogeita sei zirrara, hogeita sei solasaldi, hogeita sei emozio, hogeita sei txotx, hogeita sei hunkidura, hogeita sei algara... hogeita sei urtez Iparra Hegoa! ***Muga Langa Bota Sega!***

**MUGA** naturalik ez dago euskararen herrian eta horixe bera sentitzen dugu Iparra Hegoan harremanak sendotuz, kultura elkartrukatuz, urrunduak gerturatuz eta atzokoak gaurkotuz. Euskal Herria osatzen laguntzen dugu.

**LANGA** eta gezurrezko hesi guztiak ireki ditzagun Euskal Herria eraikitzeko, orain dela 26 urte Urruñako Berttoli eta Segurako Elorrik sortutako harremanak fruituak ematen baitirau. Langak irekitzean ekialdetik mendebaldera eta mendebaldetik ekialdera euskal kultura uztartuz eta indartuz gozatzen baitugu Euskal Herria ikasten eta sendotzen.

**BOTA** ditzagun bidean oztopoan jarri dizkiguten harriak eta urteroko bidaian, helburua argi izanda, urtero gauza berriak ikasiz, sentituz eta biziz momentu ahaztezin eta magikoak igaroko ditugu.

**SEGA** har dezagun batzuek iparraldetik eta beste batzuek hegoaldetik eta elkartrukean eta elkarlanean beste behin ere ukatu nahi diguten Euskal Herria maitasunez nortasunez eraikitzen jarraituko dugu.

***Maitasunarena, iparra hegoa***
***nortasunarena, hango hemengoa***
***maitasunarena ez dut banakoa***
***soilik Euskal Herrikoa***
Anje Duhalde

Eskerrik asko apustu zoragarri honetan zabiltzaten guztioi.

***Iparra Hegoa 2023***

# KULTUR ASTEZ KANPOKO EKITALDIAK




**MARTXOAK 3, ostirala.**
Eñaut Elorrieta , **URRUÑAKO PAUSUN**, Xaia Ostatuan 20:00etan.

**MARTXOAK 17, ostirala.**
Bizi filmak 2. *Irlak*, *400 ordu*, *Ainarak*, *Ezkeip-gaim* eta *Azken emanaldia* filmak proiektatuko dira, **URRUÑAN**, Itsas Mendi zineman. Sarrera dohakoa.

**MARTXOAK 18, larunbata.**
Bizi filmak 2. *Erraiak* eta *Bi arnas* filmak proiektatuko dira, **URRUÑAN**, Itsas Mendi zineman. Sarrera 4€.




**MARTXOAK 11, larunbata.**
Euskal Herriko Mus Txapelketako Gipuzkoako finala, **DEBAN**.

**MARTXOAK 25, larunbata.**
Euskal Herriko Mus Txapelketako final nagusia, **ZORNOTZAN**.

# MARTXOAK 27, ASTELEHENA

**Egunean zehar:** Urruñako ikastolako haurrak Seguran izango dira, egitarau egokituarekin: herriko bisita, bazkaria, haurren jaialdia eta Segurako eskolako ikasleekin harreman trukea.

**17:30:** Buruhandiak.

**19:00:** Hitzaldia.
Gaia: **HARRESIA BIDASOAN**
Hizlariak: Alaine Aranburu (Harrera Sareko kidea) eta Alain Larrea (abokatua)
Kultur etxean.



# MARTXOAK 28, ASTEARTEA

Egunean zehar: Urruñako ikasleak eta Segurako ikasleak, goizean zehar
Seguran: talo tailerra, Segura Irratira bisita, bazkaria denak batera karpan.

**15:00:** Ikasle guztietzako dantza gidatuak karpan.

**16:00:** Txokolate beroa haur guztientzat eta agurra.

**19:00:** Hitzaldia.
Gaia: EUSKAL HERRIA ETA MIGRATZAILEAK.
Hizlariak: Ane Urizar (HUHEZIKO irakaslea) eta Anaitze Agirre (SOS arrazakeriako kidea).
Segurako kultur etxean.



# MARTXOAK 29, ASTEAZKENA

**19:00:** SUKALDARITZA TAILERRA

**Sidi Mohamed Azaoui** eta **Garazi Hach Embarek**en eskutik saharar sukaldaritza.

**Rquia Aksas** eta **Samira Aksas**en eskutik marokoar sukaldaritza.
Segurako Elorri elkartean.

IPARRA 2023 HEGOA

## MARTXOAK 30, OSTEGUNA

**11:00:** Etxepare Lizeoko ikasleak, bixita gidatua CAF enpresara.
**Ondoren:** Bazkaria karpan.

**17:00:** Etxepare Lizeoko ikasleek antolatuta haur jolasak.





**19:30:** Bertso eta kantu poteoa.

**21:30:** Bertso-kantu afaria plazako karpan.
**Bertsolariak:** Amets Arzallus, Maddalen Arzallus eta Iker Zubeldia.

**Gai jartzaileak:** Jon Iturrioz, Eneko Araiztegi eta Etxepareko ikasleak.
Kuxkuxtuk animaturik.

## MARTXOAK 31, OSTIRALA

**10:00:** Etxepare Lizeoko ikasleen bisita gidatua Lazkaoko Beneditarren artxibategira.




**Eguardian:** Bazkaria karpan

**17:00:** Etxepare Lizeoko ikasleek antolatuta haur jolasak.

**19:00:** Etxepare Lizeoko ikasleen ikuskizuna: 'Libertimentua'.

**19:30:** Arkumea burruntzian eta sagardo dastaketa.

**Kale animazioa:** Kuxkuxtu.

**Iluntzean:** XUTIK. **Gauean:** DJ BULL.

## APIRILAK 1, LARUNBATA



**09:00:** Mendi ibilaldia.

**Goizean zehar:** Pilota partidak eta Desafio Musikatua

**14:30:** Gazte bazkaria eta ondoren jolasak.
**18:00:** Manifestazioa: **AZTERKETAK EUSKARAZ.**

**19:00:** Taloak eta Euskal Herriko garagardoen dastaketa.

**Kale animazioa:** Kuxkuxtu eta Rakatapunk.

**Gauean:** Kontrabanda eta Odei.

# APIRILAK 2, IGANDEA

**10:00:** Sukalki prestaketa, plazan.

**11:00 :** Kale animazioa: Albokariak.

**12:00 :** Baigorriko dultzaina joleak eta joaldunak.




## 13:00: Euskal Herriko herrialdeen arteko lotura sinbolizatzen duen GEREZIONDOKO EKITALDIA

*Gonbidatu hauekin:* Herritarrak, Udalbiltzako Hautetsiak, Ipar Euskal Herriko gonbidatuak.

***Gonbidatu bereziak:*** Bidasoa etorkinen taldeko kideak eta Irungo Harrera Elkarteko kideak.

**14:30:** Herri bazkaria, Kuxkuxtu txarangak kantuz alaituta.

**16:00:** Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa.

**16:30:** Berbena Balantza talderekin.

MAITASUNARENA...
HANGO HEMENGOA

IPARRA HEGOA

# IPARRA HEGOA

## OHARRAK:

*Iparra Hegoako txartelen zozketako zenbaki sarituak, bazkal garaian jakinaraziko dira.

*Herri bazkarirako, Gazte Egunerako edota bertso afarirako txartelak, Xaian (Urruña) edo Elorripen (Segura), hartu beharko dira.

## ANTOLATZAILEA:

IPARRA HEGOA

## LAGUNTZAILEAK:

-SEGURAKO UDALA
-UDALBILTZA
-EKE(Euskal kultur erakundea)
-SEGURAKO TABERNAK
-ELORRI ELKARTEA(Segura)
-BERTTOLI ELKARTEA(Urruña)
-BASAIZEA ELKARTEA(Baigorri)
-HITZ EDO IRRI, EUSKARAZ ELKARRI (Segurako Euskara Elkartea)
-SEGURAKO TALOGILEAK
-BILBOKO ALTXAPORRUE KONPARTSA

SEGURA IRRATIA · GOIERRIKO HITZA · EUSKAL IRRATIAK · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IPARRA HEGOAK EZ DU ERASO SEXISTA, LGTBIFOBO ETA ARRAZISTARIK ONARTZEN

